



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko maiatzaren 12a

43. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- Galdera, Iruñeko espetxean sendagile-psikiatra baten zerbitzua ziurtatze aldera Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak onetsitako mozioa betearaztearen Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa, Paula Kasares Corrales andreak egina (3. or.).
- Galdera, SPRIN sozietatearen akziodun bakarra den aldetik, Gobernuak hartu dituen erabakiei buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (4. or.).
- Galdera, Nafarroako abiadura handiko trenbide-korridorearen eta euskal Y-aren arteko loturari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (5. or.).
- Galdera, Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuaren Eledunaren Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ba ote duen Nafarroako udalek krisialdi ekonomikoan duten bideragarritasunari buruzko azterlanik. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, 2000-2008 aldian Klinika Unibertsitarioan artatutako gaixo kopuruari eta eginiko azterketa eta proba kirurgikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, arantza bifidoa duten gaixoei arreta integrala emateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, ibaietako oztopoak iragazkorrago egiteko zenbait proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, mendekotasunerako laguntza eskatzen denetik egoera baloratzen den arte igarotzen den itxaronaldia buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

—Galdera, jakiteko PFEZagatiko dirubilletaren zer ehuneko datorren lan irabazietatik. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

—Galdera, zaharrentzako egoitzetako postuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

—Galdera, ibaiertzak lehengoratzeko proiektuei eta programei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea (28. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Iruñeko espetxean sendagile-psikiatra baten zerbitzua ziurtatze aldera Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak onetsitako mozioa betearaztearren Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa.

PAULA KASARES CORRALES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Paula Kasares Corrales andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Iruñeko espetxean sendagile-psikiatra baten zerbitzua ziurtatze aldera Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak onetsitako mozioa betearaztearren Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Paula Kasares Nafarroa Bai parlamentu-taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondo ko galdera hau aurkeztu nahi du hurrengo Osoko Bilkuran gaurkotasun handiko galdera izan dadila.

Gaurkotasun handiko galdera

Zer urrats egin ditu Nafarroako Gobernuak Parlamentu honetako Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak 2009ko otsailaren 3an egindako bilkuran onartu zuen mozioa betetze aldera eta Iruñeko espetxean psikiatra-mediku baten zerbitzua bermatzearren?

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Foru parlamentaria: Paula Kasares Corrales

Galdera, SPRIN sozietatearen akziodun bakarra den aldetik, Gobernuak hartu dituen erabakiei buruzkoa.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, SPRIN sozietatearen akziodun bakarra den aldetik, Gobernuak hartu dituen erabakiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Duela gutxi, Nafarroako Gobernuak, SPRIN sozietate publikoaren akziodun bakarra den aldetik, ondoko erabakiaren berri eman zuen, prentsan argitaratutako iragarki baten bidez –iragarkian ez

dira aipatu enpresaren siglak agertzen, izen osoa baizik–, Sozietate Anonimoei buruzko Legearen 165. artikuluan ezarritakoa betetze aldera:

– Kapital soziala 150 milioitan murriztea, “kapitalaren eta galeren ondoriozko ondare murriztuaren arteko oreka berrezartzeko xedearekin, 1.500.000 akzioren amortizazioaren bidez”

– Kapitela 39 milioi euroan murriztea, “akziodun bakarrari eginiko ekarpenak itzultzeko xedearekin, 390.000 akzioren amortizazioaren bidez”

– Itzulketa hori egitea Nafarroako Gobernuari emanaz “Circuito Los Arcos sozietatearen 190.000 partaidetza, 19.000.000 euroko balioa dutenak, eta Ciudad Agroalimentaria de Tudela, S.L. sozietatearen 2 milioi partaidetza, 20 milioi euroko balioa dutenak”

Galderaren testua

Zergatik Nafarroako Gobernuak, SPRIN sozietatearen akziodun bakarra den aldetik, hartu ditu erabaki horiek? Zeintzuk dira prentsan argitaratutako iragarkiko “kapitalaren eta galeren ondoriozko ondare murriztuaren arteko oreka berrezartzeko xedearekin” esapidean aipatzen diren galerak, eta zein da galera horien arrazoia? Aipatu galerek ba al dute loturarik Los Arcosko zirkuituarekin eta/edo Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiriarekin?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, Nafarroako abiadura handiko trenbide-korridorearen eta euskal Y-aren arteko loturari buruzkoa.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako abiadura handiko trenbide-korridorearen eta euskal Y-aren arteko loturari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko eledun Ion Erro Armendarizek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasuneko ondoko ahozko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Dirudienez, Nafarroako Gobernuak protokolo bat sinatuko du laster Espainiako Gobernuarekin Nafarroako abiadura handiko trenbide-korridorea finantzatzeko.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

Nola eta zein epetan bermatuko du Nafarroako Gobernuak Nafarroako abiadura handiko trenbide-korridorearen eta euskal Y-aren arteko lotura?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuaren Eledunaren Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuaren Eledunaren Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 10eko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak erantzun idatzia jasotzeko galdera egin du Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuaren Eledunaren Departamentuaren aurrekontu-kontusail batzuei egotzitako gaien eta kontzeptuen betetze-egoerari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta zehaztapenari buruz (PES-00317). Hona aipatu departamentu horretako kontseilariaren erantzuna:

– “B10001 B1100 2276 921500 ”Komunikabideei eta ikus-entzunezkoen araudiari buruzko azterlanak” kontusaila: % 22 gauzatua, komunikabideei

buruzko azterketa juridikoari, ikus-entzuleen azterketari eta txostenari dagokienez.

– “B10001 B1130 4709 467900 Ikus-entzunezkoak ekoizteko laguntzak” kontusaila: % 100eko betetze-aurreikuspena, ikus-entzunezkoak ekoizteko laguntzetarako 2008ko deialdiari dagokiona.

– “B10003 B1120 2262 921504 Publizitate instituzionala aire-garraioetan” kontusaila: % 21,9ko betetzea, Spanair-ekiko kontratuagatik egindako ordainketari dagokiona.

– “B10003 B1120 2262 921505 Nafarroako produktuak bultzatu eta sustatzeko ekintzak” kontusaila: % 66ko betetze-aurreikuspena, Nafarroako produktuak Madrilen sustatzeko kanpainari dagokiona.

– “B20000 B2100 4609 921100 Udaletarako laguntzak, sustapen-ekintzak egiteko” kontusaila: % 100eko betetze-aurreikuspena, laguntzak lortzeko egindako deialdiari dagokiona.

– “B30000 B3000 2269 921100 Bestelako gastuak” kontusaila: % 32,2 gauzatua, eta, besteak beste, hauei dagokiena: Filmoteka Nazionalean 2008an egindako Nafarroako Zinemaren Erakusketa; Retiroko tenpletean egindako txupinazo musikala eta Iruñako-ei eginiko omenaldia; Musikako Goi Mailako Errege Kontserbatorioan eginda-

ko Mendigorriako Nazioarteko Jaialdiaren V. ekitaldia; Pamplonesa-ren kontzertua; Iñaki Otxoa Olzari egindako hilondoko omenaldia; Nafarroa jatorri-izeneko ardoak Madrilen sustatzea; Fernando Rematxaren omenezko kontzertua; Pablo Sarasate Nazioarteko Lehiaketa Errege Kontserbatorioan; Carlos Zirizaren eskultura-erakusketa; “Juan de Anchieta, escultor del Renacimiento” (“Joan Antxieta, Errenazimentuko eskultorea”) liburuaren aurkezpena; “Independentzia Gerra Nafarroan” hitzaldi-erakusketa; eta abar. % 53ko betetze-aurreikuspena, egiteko dauden jardura batzuegatik; esaterako: Nafarroako produktuak Madrilen sustatzea; Nafarroaren Eguna Teatro Español-en ospatzea; eta Pablo Saratsateren omenezko kontzertua.

– “B40000 B0200 2262 131102 Sentsibilizazio-kanpaina” kontusaila: % 100eko betetze-aurreikuspena, Immigrazioentzako Arreta Bulegoak sustatutako kanpainarako.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua betetzeko.

Iruñean, 2008ko urrian

Nafarroako Gobernuko eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ba ote duen Nafarroako udalek krisialdi ekonomikoan duten bideragarritasunari buruzko azterlanik.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak ba ote duen Nafarroako udalek krisialdi ekonomikoan duten bideragarritasunari buruzko azterlanik.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 17ko 90. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin

du Nafarroako udalek egungo krisi ekonomiko honetan ekonomiaren eta bideragarritasunaren ikuspuntutik duten egoeraren azterketari buruz. Hona Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna.

Toki Administrazioako Departamentuak jakinarazten du dagozkion funtzioak betetzearren Nafarroako udaletako eta kontzejuetako kontuetan jasotako datuak biltzen dituela, eta haien edukiei buruzko urteroko txostenak egiten; txosten horiek, geroago, Nafarroako Comptos Ganberara bidaltzen ditu, erakunde horrek kasuan kasuko iritzia eman dezan. Comptos Ganbera da kontu horien fiskalizazio-organoa, eta haren txostenak Nafarroako Parlamentuan aurkezten dira.

Comptos Ganberak tokiko sektore publikoaz 2005ean egindako azken txostena Nafarroako

Parlamentura igorri zen, eta tokiko sektore publiko-ari buruzko 2006ko txostena, halaber, egunotan bidali da Comptos Ganberara.

Iruñean, 2008ko azaroaren 7an

Toki Administrazioiko kontseilaria: Amelia Salanueva Murguialday

Galdera, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 24ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren aurrekontu-kontusail batzuei egotzitako gaien eta kontzeptuen betetze-egoerari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta zehaztapenari buruz. Hona aipatu departamentu horretako kontseilariak galderari emandako erantzuna.

Iruñean, 2008ko azaroaren 4an

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Carlos Esparza Sáez

**LURRALDEAREN ANTOLAMENDU ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUA
2008KO URRIAREN 21A****1-Kontusail hauen betetze-egoera****32100-310000-2276-261700. "Azterketa eta lan teknikoak"**

2008ko aurrekontu bateratua	1.298.781,00 €
Hitzartua	792.586,79 €

**32100-310000-4400-261703 "Toki erakundeei laguntzeko bulegoen sareak
sozietate publikoei egindako transferentzia arruntak"**

2008ko aurrekontu bateratua	300.000 €
Hitzartua	0

32200-320000-4809-261400 "Dirulaguntzak etxebizitzaren errentarientzat"

2008ko aurrekontu bateratua	4.165.518,63 €
Hitzartua	1.885.383,21 €

**32200-320000-7800-261400 "Etxebizitza-arloko jarduketetarako dirulaguntzak eta
subsidioak. Foru Programa"**

2008ko aurrekontu bateratua	48.200.000,00 €
Hitzartua	28.731.829,42 €

32200-320000-7800-261402 "Dirulaguntzak etxebizitzetako bioklimatizazioarako"

2008ko aurrekontu bateratua	5.000.000,00 €
Hitzartua	1.999.924,00 €

**32200-320000-4809-261202 kontusaila ("Etxebizitza-errentamenduen zerga-gastuak") Ekonomia eta Ogasun
Departamentuak kudeatzen du.**

2-Kontusailen betetze-aurreikuspena, kontusailak eta haietan egin gabe dauden egozpenak zehaztuta daudela**32100-310000-2276-261700 "Azterketa eta lan teknikoak"**

Ez dago egin gabeko egozpenik. Hitzartutako gastuak haiek amaitu eta egiaztatu ondoren ordainduko zaizkie hartzekodunei.

32100-310000-4400-261703 "Toki entitateak babesteko bulegoen sareak sozietate publikoei egindako transferentzia arruntak"

Betetze-aurreikuspena %100ekoa da.

32200-320000-4809-261400 "Dirulaguntzak etxebizitzaren errentarientzat"

Kontusailaren betetze-aurreikuspena %76koa da.

32200-320000-7800-261400 "Etxebizitzetan jarduketak egiteko dirulaguntzak eta subsidioak. Foru programa"

Kontusailaren betetze-aurreikuspena %87koa da.

32200-320000-7800-261402 "Dirulaguntzak etxebizitzetako bioklimatizazioarako"

Kontusailaren betetze-aurreikuspena %88koa da.

3-Kontusail hauei egotzitako gaien eta kontzeptuen zehaztapena**32100-310000-2276-261700 "Azterketa eta lan teknikoak"**

Kontzeptua	Hitzartutako zenbatekoa
ORDAINSARIAK HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUAGATIK	17.400,00 €
TAFALLAKO UDAL-PLANGINTZAREN AZTERKETA METODOLOGIKOA	24.040,00 €
HIRIGINTZA-TXOSTENAK: URB. EZ DEN LURZORUARI BURUZKO ESPEDIENT.	137.808,00 €
INGURUMEN-, KONTSERBAZIO-AHOLKULARITZA TEKNIKOA	69.102,13 €
IRUÑERRIKO PLANGINTZARAKO LAGUNTZA TEKNIKOA	20.759,94 €
PLANGINTZA-ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEKO LAGUNTZA TEKNIKOA (Nasursa)	132.863,62 €
PIRINIOEN ALDEA GARATZEKO PLAN ESTRATEGIKOAREN ZUZENDARITZA ETA OINARRIA	330.000,00 €

BIZIKLETA-PLAN ZUZENDARIAREN BARRUKO PROIEKTUA	59.995,90 €
PROGRESDEC: INGELES-GAZTELANIA ITZULPENA	617,20 €

3-Kontusail hauei egotzitako gaien eta kontzeptuen zehaztapena**32200-320000-4809-261400 "Dirulaguntzak etxebizitzaren errentarientzat"**

Kontzeptua	Hitzartutako zenbatekoa
DIRULAG. PERTS., ALOK., BOE, ERREG. BEREZIA, LAG. KUD., 4. HIRUHIL., 2007	30.844,23 €
DIRULAG. PERTS., ALOK., BOE, ERREG. OROKORRA, APART., LEIRE, 4. HIRUHIL., 2007	7.730,56 €
DIRULAG. PERTS., ALOK., BOE, ERREG. OROKORRA, LAG. KUD., 4. HIRUHIL., 2007	12.693,43 €
DIRULAG. PERTS., ALOK., BOE, ERREG. BEREZIA, FRAILE ONECA, 2. SEIHIL., 2007	63.829,87 €
DIRUL., ALOK., BOE, ERREG. BEREZIA, 4. HIRUHIL., 2007	35.229,86 €
DIRUL., ALOK., BOE, ERREG. BEREZIA, 2. SEIHIL., 2007	933,12 €
DIRULAG., ALOK., BOE, ERREG. BEREZIA, 2007-KO OTS. - 2008-KO URT.	3.310,44 €
DIRULAG., ALOK., BOE, ERREG. BEREZIA, 2007. URTEA, TAFALLAKO UDALA	18.603,34 €
DIRULAG. PERTS., ALOK., BOE, ERREG. BEREZIA, ADANIA PAT., 4. HIRUHIL., 2007	120.466,80 €
DIRULAG., ALOK., BOE, BURLATAKO UDALA, 2. SEIHIL., 2007	23.673,71 €
DIRULAG., ALOK., APARTAMENTSU TUTELATUAK, LEIRE, 1. HIRUHIL., 08	7.785,04 €
DIRULAG., ALOKAIKURUA, LAGUNTZA-KUDEAKETA, 1. HIRUHIL., 08	12.766,08 €
DIRULAG., ALOKAIKURUA, LAGUNTZA-KUDEAKETA, 1. HIRUHIL., 08	30.815,56 €
DIRULAGUNTZA, "ALOKAIKURU-POLTSA", VINSA-RENTZAT, 1. HIRUHIL., 08	26.570,30 €
DIRULAG., ALOK., BOE, ADANIA ONDAREARI, 1. HIRUHIL., 08	126.011,02 €
DIRULAGUNTZA, ALOKAIKURUA, BOE, VINSA-RI, 1. HIRUHIL., 08	198.077,79 €
DIRULAG., ALOKAIKURUA, BOE, ERREG. BEREZIA, COGREMASA, 1. HIRUHIL., 08	90.632,07 €
DIRULAG., ALOKAIKURUA, BOE, ERREG. BEREZIA, BANIF INMOBIL, 1. HIRUHIL., 08	159.425,66 €
DIRULAG. PERTS., ALOKAIKURUA, BOE, AH CORPOR, 1. HIRUHIL., 08	34.453,51 €
DIRULAG. PERTS., ALOKAIKURUA, BOE, BANIF, 1. HIRUHIL., 08	116.083,03 €
DIRULAG., ALOKAIKURUA, BOE, ERREG. BEREZIA, IMPOSTA-RI, 2. HIRUHIL., 08	3.103,02 €
DIRULAG., ALOKAIKURUA, BOE, ERREG. BEREZIA, FELIX FRAILE-RI, 1. SEIHIL., 08	78.503,84 €
DIRULAG., ALOKAIKURUA, BOE, ERREG. BEREZIA, ADANIA, 2. HIRUHIL., 08	127.503,28 €
DIRULAG., ALOKAIKURUA, VINSA, 2. HIRUHIL., 08	32.165,67 €
DIRULAG., ERRENTAM., BOE, ERREG. BEREZIA, 2. URTEKO KUOTA, GENERO-INDAR.	3.233,16 €
DIRULAG., ALOKAIKURUA, BOE, ERREG. BEREZIA, VINSA, 2. HIRUHIL., 08	199.015,13 €
DIRULAG., ALOKAIKURUA, BOE, ERREG. BEREZIA, COGREMASA, 2. HIRUHIL.	91.530,72 €
DIRULAG., ALOKAIKURUA, BOE, APART. TUTELATUAK, LEIRE, 2. HIRUHIL., 08	7.626,31 €
DIRULAG., ALOKAIKURUA, BOE, ERREG. BEREZIA, LAGUNTZA-KUDEAKETA., 2. HIRUHIL., 08	32.862,78 €
DIRULAG., ALOKAIKURUA, BOE, LAGUNTZA-KUDEAKETA, 2. HIRUHIL., 08	13.448,76 €
DIRULAG., ALOKAIKURUA, BOE, ERREG. BEREZIA, RAMIRO M. PROM., 2. HIRUHIL. 08	925,79 €
DIRULAG., ERABILITAKO ETXEBIZITZAK PARTIKULARREI ALOKATZEA, 3. HIRUHIL., 08	48.696,65 €
DIRULAG., ALOKAIKURUA, BOE, ERREG. BEREZIA, ADANIA, 3. HIRUHIL., 08	126.832,68 €

32200-320000-7800-261402 "Etxebizitzen arloko jardueretarako dirulaguntzak eta subsidioak. Foru Programa"

Kontzeptua	Hitzartutako zenbatekoa
DIRULAGUNTZAK ETXEBIZITZAK 12.851.532,5 ZAHARBERRITZEAGATIK, BABESTUTA 9 € DIRULAGUNTZA, ETXEBIZITZARAKO MAILEGUEN INTERESAK	33.003,37 €
DIRULAGUNTZA, BOE, ERRENTAMENDUA € GIZARTERATZEKO ETXEBIZITZEN PROGRAMA 527.274,79 €	
DIRULAGUNTZAK ERREG. OROKOR, 11.166.707,2 BEREZI, TASATUKO BOEak EROSTEN 3 € ERAISTEKO DIRULAGUNTZA	143.138,10 €

3-Kontusail hauei egotzitako gaien eta kontzeptuen zehaztapena**32200-320000-7800-261402 "Dirulaguntzak etxebizitzetako bioklimatismorako"**

Kontzeptua	Hitzartutako zenbatekoa
DIRULAG. ERRENTAMENDU ETA BIOKLIMATISMORAKO, LIZARRAGA, SL TALDEA	79.440,15 €
DIRULAG., ARKITEKTURA, BIOKLIMATISMOA, VITRA PARQUE DEL ARGA	163.118,02 €
DIRULAGUNTZA, BIOKLIMATISMOA, NASIPA-GOTORKI XXI, ABEE	126.008,24 €
DIRULAGUNTZA, BIOKLIMATISMOA, NASIPA-GOTORKI XXI, ABEE	228.805,77 €
DIRULAGUNTZA, BIOKLIMATISMOA, CONSTRUCCIONES FLORES-I	123.946,65 €
DIRULAGUNTZA, BIOKLIMATISMOA, PROCESA-PROGINSAR	86.483,68 €
DIRULAGUNTZA, BIOKLIMATISMOA (2. ORDAINK.) VITRA PARQUE DEL ARGA	39.751,81 €
DIRULAGUNTZA, BIOKLIMATISMOA, 52 ETXEB., VITRA PARQUE DEL ARGA	15.574,74 €
DIRULAGUNTZA, BIOKLIMATISMOA, (2. ORDAINK.), PROURNA MURO	81.547,32 €
DIRULAGUNTZA, BIOKLIMATISMOA, (2. ORDAINK.), ESTELLA URBANAGARNICA	85.030,87 €
DIRULAGUNTZA, BIOKLIMATISMOA, (2. ORDAINK.), FLORES	215.724,07 €
DIRULAGUNTZA, BIOKLIMATISMOA, (2. ORDAINK.), PLAZAOLA	86.860,33 €
AURRERAKINA, 23 DIRULAGUNTZA, BOE, BIOKLIMATISMOA, VINSAR	36.618,97 €
AURRERAKINA, 25 DIRULAGUNTZA, BIOKLIMATISMOA, COGREMASA	83.456,30 €
AURRERAKINA, 26 DIRULAG., BIOKLIMATISMOA, EGUES	207.886,36 €
DIRULAGUNTZA, BIOKLIMATISMOA, (1. ORDAINK.), CONSTRUCC. FLORES SAR	123.946,65 €
DIRULAGUNTZAK, BIOKLIMATISMOA, (1. ORDAINK.), CONSTRUCC. JB FLORES	215.724,07 €

Galdera, 2000-2008 aldian Klinika Unibertsitarioan artatutako gaixo kopuruari eta eginiko azterketa eta proba kirurgikoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Chivite Navascués andreak galdera egin du 2000-2008 aldian Klinika Unibertsitarioan artatutako gaixo kopuruari eta eginiko azterketa eta proba kirurgikoei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 24ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak parlamentu-galdera egin du 2000-2008 aldian Unibertsitate Klinikian artatutako pazienteen kopuruari eta egindako azterketei zein proba kirurgikoei buruz (PES-328/08). Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Artatutako pazienteen kopurua:

Urtea	Pazienteen kopurua	Kostua
2000	5.208	8.922.727,81
2001	5.799	9.961.334,89
2002	5.507	10.899.611,63
2003	4.947	10.426.540,30
2004	5.169	11.857.563,56
2005	5.172	11.979.552,09
2006	6.116	16.146.774,47
2007	7.680	16.354.819,03
2008 *	5.476	13.558.258,83

* Urtarriletik irailera bitarteko datuak.

2.- Azterketen kopurua:

Urtea	Azterketak	Kostua
2000	893	100.382,94
2001	1.573	191.572,33
2002	1.552	215.668,38
2003	1.406	198.724,59
2004	1.740	267.835,61
2005	1.779	334.320,26
2006	1.840	454.819,99
2007	2.080	583.332,65
2008 *	1.985	643.282,92

* Urtarriletik irailera bitarteko datuak

3.- Proba kirurgikoen kopurua

Urtea	Ebakuntzak	Kostua
2000	885	3.113.664,34
2001	914	3.505.770,46
2002	715	3.601.130,59
2003	586	3.168.830,98
2004	593	4.324.688,28
2005	582	3.328.207,11
2006	1.097	5.650.099,25
2007	1.279	5.505.010,32
2008 *	1-011	5.272.767,31

* Urtarriletik irailera bitarteko datuak

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko azaroaren 6an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, arantza bifidoa duten gaixoei arreta integrala emateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Chivite Navascués andreak galdera egin du arantza bifidoa duten gaixoei arreta integrala emateari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 24ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak galdera egin du arantza zatibitua osorik artatzearekin zerikusia duten zenbait gairi buruz (PES-329/08). Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Arantza zatibitua osorik artatzeko funtzionamendu-protokoloa ezartzeari dagokionez, departamentuaren ustez koordinatzaileak aztertu behar

ditu sakon arazoa eta litezkeen konponbideak, betiere kontuan hartuta zer behar dituzten familiak, zer iritzi dauzkaten gaixo horiek artatzen dituzten profesionalak eta zer arreta-aukera dauden sistemaren barruan.

2.- Enrique Bernaola Iturbe doktorea izanen da aholkularia.

3.- Osasun Publikoaren Institutuko Osasunaren Sustapenerako Atalak kanpaina hori abiaraztea dauka jasota 2009rako agendan; izan ere, atal horrek urteko programazioarekin lan egiten du.

4.- Arantza zatibitua jasaten duten pazienteak gaixo kronikotzat hartzeko eskatu da; hartze hori Osasun eta Kontsumo Ministerioaren eskumena da, eta, horregatik, Osasun Departamentuak, kontseilariaren bidez, harremanetan jarri da ministerioarekin, aitortze hori azter dadin.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko azaroaren 6an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, ibaietako oztopoak iragazkorrago egiteko zenbait proiekturi buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du ibaietako oztopoak iragazkorrago egiteko zenbait proiekturi buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 24ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du ibaietan oztopoak iragazkortzeko zenbait proiekturi buruz (PES-333). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1.- Eraispena Kantaurialdeko Konfederazio Hidrografikoak hartutako konpromisoa da. Oraingoz, izapidetzen ari dira lagapenaren iraungipena, eta hori alde zuzeneko beharrezko urratsa da.

2.- Aurreikuspena zen obra aurten amaitzea, baina ezin izan da egin, lurren erabilgarritasun-arazo batengatik; ziur aski, datorren urtean helduko zaio obrari.

3.- Arraiozko errotako presan eskala eraikitze-ko proiektua gauzatzen ari da.

4.- Antsolokuetako presan, proiektua gauzatzen ari da.

5.- Gorzako errotari dagokionez, oraindik ez da izapidetu lagapenaren iraungitze-espeditatea, eta, beraz, ez dago eraikuntza-proiekturik; segur aski, hurrengo bi urteetan helduko zaio.

6.- Jadanik idatzitako proiektuak hauek dira:

– Oztopoak iragazkortzea Baztan ibaian; Lekarozko presa.

– Oztopoak iragazkortzea Baztan ibaian; Opo-kako presa, Elizondon.

– Oztopoak iragazkortzea Bidasoa ibaian, Berako zentrolean.

– Oztopoak iragazkortzea Aragoi ibaiaren arroan; Murillo el Frutoko minizentraleko noria; ezker-aldea.

– Oztopoak iragazkortzea Aragoi ibaiaren arroan; Murillo el Frutoko minizentraleko noria; eskuinaldea.

– Oztopoak iragazkortzea Aragoi ibaiaren arroan; Melidako minizentraleko noria.

– Oztopoak iragazkortzea Aragoi ibaiaren arroan; Martzillako minizentraleko noria.

– Oztopoak iragazkortzea Aragoi ibaiaren arroan; Valtierra-ko presa.

– Oztopoak iragazkortzea Erasote ibaian, Leitzako arrain-haztegiko presa.

Lanak aurrekontu-lesleipen erabilgarria eta aroko erakundeen nahiz, hala egokituz gero, interesdunen aginduzko baimenak lortzea oinarritzat hartuta egingen dira.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko azaroaren 7an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Ekonomia eta Ogasun Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 10eko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du 2008. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan jasotako zenbait kontusaili buruz –PES-309–. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

1. Eskatutako kontusailen betetze-egoera zein den jasotzen duen taula bat erantsi dugu.

2. Honako hau da eskatutako kontusailen amaierako betetze-aurreikuspena, egiteko dauden egozpenak zehaztuta:

113003 11200 2276 493300 Enpresek egin-dako lanak

Espero da betebeharrak aitortzea konprometitutako kreditu osoarengatik, ez baitago arrazoirik

bestela pentsatzeko (agindutako lanak epearen barruan egingen dira).

Kontabilizatutako konpromisoez gain –212.956 € guztira–, konpromiso hauek oraindik erregistratzeko daude – kreditu-erreserba kontabilizatu zaie–:

- Europako Funts Sozialaren Helburua 3 (3 neurri) Programa Operatiboaren finantza-kontrola; 15.776 €.

- Ikastetxeetako funtzionamendu-gastuen auditoria; 3.596 €.

Azkenik, urtea amaitu baino lehen, jarduketa hauek egitea dago aurreikusita:

- Aldez aurreko fiskalizaziotik salbuetsita dauden gastuen finantza-kontrola; 10.000 €.

- Erakunde Ordaintzailearen auditoria informatikoa; hasieran ez zegoen aurreikusita, baina erkidego-arauketa berriak eskatzen du. Jarduketa horren zenbatekoa: 17.400 €.

Behar horiei aurre egiteko, doitze bat egingen da programa beraren barruan lotuta dauden kontusailen artean.

